

Josemari Velez de Mendizabal

Aurrerantz baikortasunetik



tasuna ez da salgai aproposa komunikabideetan. Albistegiari erreparatzea nahikoa dugu aurreko baieztapenaren borobiltasuna frogatzeko (zergatik idatzi behar da biribiltasun, borobiltasuna borobilagoa baldin bada?). Eta badirudi inguratzen gaituen espazio finituan gehien estilatzen den kolorea beltz iluna dela, etsipenerako bultzagile aparta, berau.

Ez dakit nire adinera iritsi naizelako izango ote den –orain arte izan dudana altuena– baina konturatzen ari naiz kutsu beltz eta negatiboko giroak ez nauela betetzen, ez didala intelektua elikatzen. Bizitza-eskarmenak diost errealitateari bizkarra emanek nekez hel dakiokela gurpilaren joan etengabeari, baina bizitza-penetako motxilak berak oroitarazten dit gizon-emakumerik jantziarik ere biluzik amaitzen dutela malkoetako ibarretik barreneko euren ibilbidea. Beraz?

Ez zait interesatzen ispiritu tanta mingots ekidinkorrez kutsatzea, nahikoa baitut berezko eta ezinbestez jasan beharreko gurutze eta kalbarioekin. Zertarako handitu goibeltasuna elikagai artifizialekin?

Sentimenduen askapena gauzatuko badugu adimenaren hegoak erabat libre aritu behar dituguneko iritzikoa naiz, zama negatiboko mezu induzituertarako bat ere lokarrik gabe. Eta bibrazio ezkorrei aukera eman barik, gudan itxaropenezko tenpluak eraiki behar ditugulakoan naukazue, bertatik bakarrik gertu baitaitezke ekintza-plataforma sendo eta eraginkorrak.

Ez dut nire mundu hurbila belztasunetik irudikatu nahi, inguratzen nauen giroak bestelako izpiak bidaltzen dizkidan arren. Nire jarrera horrekin, ordea, ez dut gezurrezko oinarri faltsurik ere ahalbidetu gura. Eta garbi daukat orekari eustea ez dela erraza izaten, eguneroko milaka adibidek behin eta berriz egiaztatzen



DANI BLANCO

duten moduan. Baina ez zait interesatzen frikzio eta noraezko sentsazio etengabeari kantxa ematea, ez bainago prest alferreko indarrak gatzatzeko iluntasunaren magian nagusiak direnen onurako.

Nahiago dut baikortasunerako bidea ongarritu, elkarbizitzaren gutxieneko baldintzak berde kolorez ageri dakizkidan. Eta asmoa ustel gerta ez dakidan, norabide anitzeko indar eragilearen premia daukat, ahalginean esku zuzena hartuz. Erantzunik gabeko transmisioa norabide bakarrekoa da eta horrek ez du emozio positiboa sorrarazten. Berba egiteak –interakzioak– mezuak beren neurrian ulertzea errazten du, solaskideen plazera piztuz. Eta abiapun-



Ez dut nire mundu hurbila belztasunetik irudikatu nahi, inguratzen nauen giroak bestelako izpiak bidaltzen dizkidan arren. Nire jarrera horrekin, ordea, ez dut gezurrezko oinarri faltsurik ere ahalbidetu gura. Eta garbi daukat orekari eustea ez dela erraza izaten, eguneroko milaka adibidek behin eta berriz egiaztatzen duten moduan



tuko gristasun kolektiboa argitasuna bihur dezake komunikazioak, adimentsuen kasuan, behintzat. Baina hori eman dadin arras beharrezkoa da norberaren borondate askean indartsu aritzea.

Medioetako oldarkeria negatibo induzitua gizon-emakumeon adimenarako loerazleak direla kontziente bagara, gizaki sentikorrek bezala oreka bilatzea da dagokigun hurrengo urratsa, beti aurrera begira eta animo berritzaileekin. ■

